




Matxo Rodríguez Arkaute

**ARTEA ETA
KULTURA LIBREA:
JARDUNBIDE ARTISTIKOAREN
ESPARRUKO KULTURA LIBREAREN
ETA LIZENTZIEM HASTAPENAK**

ilustrazioak: Jon Mantzisor



KAT
ARTE ETA
TEKNOLOGIA
KOADERNOAK

UPV EHUren laguntza



UPV EHU

Matxo Rodríguez Arkaute

**ARTEA ETA
KULTURA LIBREA:
JARDUNBIDE ARTISTIKOAREN
ESPARRUKO KULTURA LIBREAREN
ETA LIZENTZIEM HASTAPENAK**

ilustrazioak: Jon Mantzisor



eman ta zabal zazu



UPV EHU

Artea eta kultura librea: Jardunbide artistikoaren esparruko kultura librearen eta lizentzien hastapenak

Ekoizpena: Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultateko Arte eta Teknologia Sailaren Atala.

Argitaratze-komisioa: Iñaki Billelabeitia, Juan Crego, Saioa Olmo (koordinatzailea) eta Natalia Vegas.

Testuaren autoreak: Natxo Rodríguez.

Gaztelaniazko zuzenketa: Sonia Berger (La Troupe).

Euskarazko itzulpena: Lide Azkue (Elhuyar Fundazioa).

Euskara-begiraletza: Jesus Mari Makazaga.

Ilustrazioak eta tratamendu grafikoak: Jon Mantzisor.

Argazkiak: bere autoreenak.

Diseinua eta maketazioa: Izaskun Álvarez Gainza eta Unai Requejo.

Eskerrak beren kolaborazioagatik: UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza, Euskara Zerbitzua eta Irudigintza Saila.

Inprenta: Grafilur.

Lehenengo edizioa: 2021ko ekaina.

ISBN: 978-84-121490-4-3

Lege-gordailua: LG BI 00867-2021

Euskal Herrian inprimatuta.

Lizentzia: lan hau honako lizentzia honen pean dago: *Creative Commons* Aitorpena-EzKomertziala – BerdinPartekatu 4.0 International (CC BY-NC-SA 4.0).
<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es>



<https://addi.ehu.es/>

<https://www.ehu.eus/ehusfera/arteaetateknologia/>



9 788412 149043

Sarrera

Aro digitalaren fenomenoak nagusitu da azkenaldian, eta ikusten ari gara goitik behera aldatzen ari dela ekoizpen artistiko eta kultural garaikidea zer baldintzatan egiten den. Gaur egun kultura ekoizteko, banatzeko eta eskuratzeko ditugun moduek ez dute zerikusirik orain dela urte gutxi batzuetakoekin.

Badakigu hortik aldaketa handiak datozela eta sare eta gailu berriek aukera handiak dakarzkigutela. Horregatik, egoera digital berri honetan ekoizpen kultural artistikoa nola ekoizten, banatzen eta eskuratzen den landuko dugu UPV/EHUko Arte eta Teknologia Saileko koaderno hauetan. Egile-eskubideei eta jabetza intelektualari buruzko eztabaidari dagokienez, kultura libreko ideietara hurbilduko gara, eta *copyleft* ideia landuko dugu, haren ekarpen kontzeptualen, politikoaren eta didaktikoaren bidez.

Ikusiko ditugu, halaber, ezagutzaren kudeaketarekin erlazionatutako kontuak; lizentziak, sortzeko eta banatzeko tresna gisa, eta, bereziki, *Creative Commons* lizentziak. Egoera berri honetan, egoerak dakarren paradigma-aldaketan murgilduta egonik, egileok, ekoizleok eta kudeatzaileok gure lanari eta, oro har, artearen sistemari eragiten dioten erabakiak hartu behar izan ditugu.

3

Aurkibidea

1. Zertarako den eskuliburu hau: «Hartu zeure erabakiak»	5
2. Legeek sormena itotzen dute	5
3. Wikipedian agertu ezean, ez zara nor	8
4. Helburuak	10
5. Unibertsitatearen eta arte-sorkuntzaren testuingurua	11
6. Zientzia-aldizkarien iruzurra (SCI-HUB)	12
7. Jabetza intelektualari buruzko oinarritzko ideia batzuk	14
8. Softwarearekin hasi zen guztia	18
9. Kultura libre	22
10. Copyleft	26
11. Lizentzia libreak (dena ez da CC)	26
12. Creative Commons	29
13. Lizentziak nola erabili	31
13.1. Lizentzia bat aukeratzea	32
13.2. Paperezko argitalpenetan	32
13.3. Erakusketa-aretoan	32
13.4. Leku publikoetan	33
13.5. Eremu digitalean	33
13.6. HTML + RDFa	33
13.7. XMP	33
13.8. Metadatuene beste sistema batzuk	34
13.9. Audioa eta bideoa	34
14. Egile-eskubideak kudeatzeko erakundeak	35
15. Kultura beti iraganaren gainean eraikitzen da	37
16. Bibliografia	40

1. Zertarako den eskuliburu hau: «Hartu zeure erabakiak»

Koaderno hau aurreko bi dokumenturen eguneraketatik sortu da; dokumentu horiek, nolabait esateko, egile-eskubideari, kultura libreari eta lizentzia libreei buruzko eskuliburuak izateko asmoa zuten. Bi dokumentu horiek dira «Arte y *copyleft*» —*Copyleft Manual de uso* (Traficantes de Sueños, Madril, 2006) liburuan sartua— eta «Arte en la Universidad: ¡Dar, copiar y difundir!» —Transductores 3. Prácticas artísticas en contexto (Centro José Guerrero, Granada, 2015)—. Testu honen funtsezko oinarria da, halaber, doktore-tesi hau: «Artes visuales y cultura libre. Una aproximación *copyleft* al arte contemporáneo» (EHU, Leioa, 2008).

Orrialde hauen helburu nagusia da gida txiki bat izatea gure lan artistikoari edo sormenezkoari buruzko erabakiak hartzeko orduan, lan horiek gure eskura dauden baliabide fisiko edo digitalen bidez zabaltzen direnerako.

Gogoeta hori egiteko, lan artistikoari begiratzeko era aldatu beharra dago, ez hainbeste jakiteko beste egile batzuen lanarekin zer egin dezakegun, baizik eta lehen pertsonan pentsatzeko besteek zer egin dezaketen geure lanarekin. Kontua da, horrenbestez, marrazki, kanta, irudi edo beste edozein kultura-produktu besteengana zer askatasun-mailarekin iritsiko den erabakitzeko ahalmena berreskuratzea, ahal den neurrian.

5

2. Legeek sormena itotzen dute

Hasi aurretik, gastronomiaren munduari erreparatuko diogu une batez: Euskal Herrian oso ondo ezagutzen ditugu sukaldaritza berria, etxeko ohiturak, errezetak eta esparru horretan dabilen guztia, gastronomia aspalditik delako, zalantzarik gabe, gure eguneroko bizitzaren, kulturaren eta identitatearen parte.

Euskal Herrian ez ezik, beste toki batzuetan ere esponentzialki eta maila guztietan (ekonomikoan, turistikoan eta enpresarialean) hazten ari den sormengune bihurtu dira gastronomia eta sukaldaritza. Inork ezin du ukatu, gainera, gastronomia-sukaldaritza-janari hirukoaren hazkundera ez dela izan ekonomikoa soilik; nolabaiteko aurrerapen kulturala eta soziala ere ekarri ditu. Are, ziurta genezake hazkuntza-likido soziokultural hori izan dela, hain zuzen, sukaldaritzak eta gastronomiak azken urteotan bizitako aparteko *boom*-aren oinarria, neurri handi batean.

BILBAO 2018



A S T E



A G U S I A



BUZTUAK 18-20

Atusia Tou
3
No

eman ta zabal zazu



UPV EHU

UPV EHU



Aldi berean, baina, sormen-askatasun osoko esparru bat da, non besteen lana irabazi-asmorik gabe partekatzeko, kopiatzeko eta aldatzeko aukera baitago, inolako mugarik gabe... Eta, hala eta guztiz ere, gastronomiaren ekosistemak funtzionatzen du, hazi egiten da, eta aberastasuna sortzen du. Ekosistema horretako eragile guztiak beren lanetik bizi dira¹, gizartearen kultura gastronomikoa aberasten da; balioa ematen zaio lurraldeari; lurraldea aberasten da, eta, aldi berean, sektoreak aurrera egiten du maila batean baino gehiagotan.

Gaur egun irudika al genezake antzeko ingurune bat jardunbide artistikorako eta ikusizko sorkuntzarako? Ingurune guztiz libre bat², non gauzak baimenik eskatu gabe kopiatu, aldatu eta partekatu baitaitezke? Erraz asmatzen da erantzuna zein izango den, oso pertsona gutxi konprometituko liratekeelako horrelako egoera batekin; eta are urriagoak izango lirateke horrelako errealitate kultural baten alde egingo luketen enpresak eta erakundeak (kultura-arlokoak). Egoera guztiz bestelakoa da. Gaur egungo kultura-ekoizpenaren errealitateak, malgutuz joan beharrean —araudiei dagokienez, behinik behin—, legeria gero eta murriztaileagoa du; edukia eskuratu, partekatu, kopiatu edo aldatzeko aukerak geroz eta urriagoak dira. Gaur egun pentsaezinak dira, esate baterako, laurogeiko hamarkadan beste egile batzuen lanarekin egin ohi ziren jabetzeak, muntaiak edo laginketak³; izan ere, ordudanik legeak aldatuz joan dira eta besteren lanak erabiltzeko aukera mugatuz, pixkanaka. Horrekin batera, geure lanaren inguruko erabakiak hartzeari ere mugak jarri zaizkio, eta konplexuago bihurtu.

Hala ere, jabetza intelektualeko araudien bilakaera murriztaile horrek talka egiten du etengabe teknologia digitalak ematen dizkigun aukerekin. Etengabeko tirabira dago teknologikoki egin daitekeenaren eta legalki eragotzi nahi denaren artean. Irudiak, musika edo multimedia-fitxategiak kopiatzeko eta tratatzeko teknologiak eta aparatuek garatzen dituzten enpresa berberak alderantzizko ingeniari-tzian inbertitzen dute, ekintza horiek beren interesen aurkakoak direnean mugatu, enkriptatu eta zailtzeko. Aukeren eta oztopoen arteko tirabira hori agerian geratzen da bereziki erabiltzaileen belaunaldi berrietan; mugarik gabeko aukera digitalen ingurune batean jaio dira, eta guztiz arrotzak zaizkie duela hamarkada gutxi batzuk indarrean zeuden modu analogikoak.

1 Ez da ahaztu behar sektore honetan ere, beste batzuetan bezala, prekarietatea dagoela: behin-behineko kontratuak, soldata baxuak eta, askotan, lan-baldintza eskasak.

2 *Copyright*ik gabeko mundu moduko bat, Smiers-ek dioen bezala. Smiers, Joost, *Un mundo sin copyright: artes y medios en la globalización*, Bartzelona: Editorial Gedisa, 2006.

3 DiCola, Peter eta Kembrew McLeod, *Criminales del copyright: Ley y cultura del sampling en la música electrónica*, Gijón: Hoja de Lata, 2014.

Gure asmoa ez da koaderno honetako edukiaren bidez sekulako egiak edo teoriak ezagutzera ematea jabetza intelektualari eta artearekin eta sorkuntzarekin duen harremanari buruz. Aitzitik, hauxe da gure helburu nagusia: egungo zereginaren eta eragiten diguten arauen arteko tirabirak badaudela agerian uztea, eta, eztabaida horren erdian, zenbait tresna praktikoko eta kontzeptual eskaintzea, egileoi⁴ geure lanaren inguruko erabaki batzuk hartzeko aukera ematen digutenak. Zeren, esparru honetan egia bada, hauxe da: aspaldian batzuen eta besteen interesek eta beharrek, azken aukera teknologikoez eta egungo kultura-erabilerekin zipriztindutako eztabaida amaigabe batean gabiltza, eta gero eta zailagoa da erabakitzea nork duen arrazoi eta zein diren jokoaren arauak.

3. Wikipedian agertu ezean, ez zara nor

Sorkuntza gastronomikoaren eta sorkuntza artistiko edo ikusizkoaren arteko aldeak begi-bistakoak dira, eta haien artean paralelismoak egiten saiatzea gauzak behartzea da; asko jota, eztabaida iradokitzaileak sortu eta itxuraz eztabaidagarriak diren zenbait ziurtasun zalantzan jar ditzakegu, ez besterik.

8 Baina bada leku bat, non azken aukera teknologikoez eta ezagutzaren joan-etorriak bat egiten baitute: Wikipedia. Izan ere, giza jakintzaren gordailu hegemoniko⁵ bihurtzen ari da, eta ezin da ukatu ez duela parerik lankidetzazko eta *onlineko* entziklopedia gisa, eguneroko edozein kontsulta hizkuntza ugaritan egiteko. Heziketako eta are unibertsitateko esparru akademikoko erreferentzia ia nahitaezko bihurtuz doan heinean, Wikipedia indar hartzen ari da kontsultak egiteko ohiko iturri gisa ere. Talde feministak, adibidez, kezkatuta daude emakumeek eta beste talde gutxitu batzuek ezagutza-esparru askotan duten ikusgarritasun urria dela eta, eta aspalditik daude mobilizatuta, emakumeek presentzia handiagoa eta kalitate handiagokoa izan dezaten Wikipedian, artearen, literaturaren, zientziaren eta historiaren arloetan, bestek beste. Primeran ulertu dute gaur egun Wikipedian agertzea garrantzitsua dela aintzatespena lortzeko, eta bide eraginkorra dela emakumeak sistematikoki ikusezin bihurtuta egon diren arloetan haien presentzia berreskuratzeko. Horrez gain, kontuan hartzen badugu belaunaldi berriek informazioa eskuratzeko erabiltzen duten baliabide nagusia dela, are garrantzi handiagoa hartzen

4 Arte Ederren fakultate batean gaude, eta, beraz, bi aldiz gara egileak: sorkuntzarekin eta arteekin zerikusia duen guztian, alde batetik, eta, Unibertsitatearen gainerako atalak bezala, ezagutza-iturri gisa, bestetik.

5 Wikipedia 2001ean sortu zen, eta entziklopedia librea, eleaniztuna eta elkarlanean editatua da.

du. Beraz, Wikipedian presentzia izatea eta ezagutza-arlo jakin batean aintzatespena izatea elkarri lotuta daude gaur egun, ezinbestean, eta ondo gogoan izan behar dugu hori. Are gehiago Arte Ederren fakultate batean; izan ere, Wikipediak biltzen duen informazioa batez ere idatzizkoa den arren, ikusizko eta entzunezko erreferentziak ere jasotzen ditu. Zalantzarik gabe, idatzizko informazioa da ugariena, entziklopedia klasikoia guztietan bezala, baina gure sektorean irudiak eta soinua testua bezain garrantzitsuak eta beharrezkoak dira (edo are garrantzitsuagoak eta beharrezkoagoak).

Testu asko izanagatik, irudiak eta soinua behar ditugu artisten, diseinatzaileen, ikus-entzunezkoen errealizadoreen edo bestelako ikusizko edo entzunezko sortzaileen lana ezagutzeko eta ulertzeko. Ikus-entzunezkoak funtsezkoak dira gure lanerako, eta, horregatik, ezinbestekoa da Wikipedian eta antzeko lekuetan agertzea. Hala ere, historiako sortzaile garrantzitsuenetako askoren profila osatu gabe dago munduko entziklopedia handienean, ikusizko informazio ezinbestekoa falta baita haien ekarpenetara ikuspegi osoarekin hurbildu ahal izateko. Nahikoa dugu Pablo Picasso (1881-1973), Sonia Delaunay (1885-1979), Mark Rothko (1903-1970) edo Varvara Stepanova (1894-1958) artisten sarrerei begiratu bat ematea, konturatzeko ezen, datu-kantitate handiaren artean irudi batzuk aurkitu ditzakegun arren, haietako bat ere ez dela haien lanaren adierazle. Horrenbestez, lehen galdera hau sortzen zaigu: nola uler dezakegu sortzaile edo ikusizko sortzaile baten lana, informaziorik esanguratsuena falta bazaigu? Eta, ondoren, bigarren hau: zergatik gertatzen da hori?

Erantzuna ez da batere erraza. Jabetza intelektualari buruzko gaur egungo legeek berariaz debekatzen dute egilearen baimenik gabe irudiak argitaratzea, jabari publikoan daudenak izan ezik, eta Wikipedia, Interneten garaian arraro egiten bazaigu ere, oso zorrotza da egile-eskubideekin eta jabetza intelektualaren arauekin, eta ez du argitaratzen egilearen baimenik ez duen edo libreki erabil ezin daitekeen ezer. Picasso, Delaunay, Rothko edo Stepanovak ezin digute kontatu zer iritzi duten horren inguruan, eta are gutxiago horri buruz zer egin; beraz, jabetza intelektualaren arauak ezartzen duten irizpide orokorra gailentzen da. Hala ere, artista horiek beren lanaren erabileraz ezer erabaki ezin badute ere, guk egin dezakegu, eta garaiz gaude erabaki batzuk hartzeko. Nola? Horixe da koaderno honen helburua, eta lehen aipatu dugunez, hemendik aurrera erabaki batzuk hartzeko lagungarri izan dakizkigukeen tresna batzuk aztertuko ditugu. Ez bakarrik une jakin batean Wikipedian presentzia izateko, baizik eta, oro har, gure lana zer baldintzatan erabiltzen, erakusten, zabaltzen, kopiaetzen eta aldatzen den erabakitzeke, besteak beste.

4. Helburuak

Hala, hauexek dira koaderno honen helburuak:

Jabetza intelektualari buruzko oinarrizko ezaupideak eskuratzea. Oro har, jabetza intelektualari eta egile-eskubideei buruzko arauak lege-testu konplexuen bidez ematen dira, erabiltzaile gehienentzat ulergarria ez den hizkera juridiko batean. Oinarrizko kontzeptu batzuk eta haien aplikazioa modu errazagoan azaltzen saiatuko gara hemen.

Kultura librearen oinarriak ezagutzea. Kultura librearen esparrutik hainbat ikuspegi eta proposamen sortu dira, jabetza intelektuala kudeatzeko ohiko moduak ezbaian jartzen dituztenak, eta, hortik abiatuz, baita zenbait proiektu ere, hala nola *Creative Commons* lizentziak. Mugimendu honen printzipioetako batzuk ezagutzea garrantzitsua da CCen nahiz beste lizentzia eta proposamen batzuen (adibidez, *copyleft*) zergatiak eta arrazoiak ulertzeko.

Lizentzia libreak ezagutzea. Gaur egun jabetza intelektual tradizionalaren ordezkotik aukera sendoena dira. Haien funtzionamendua ulertzea giltzarri da geure lanaren inguruan erabakiak hartzeko.

Lizentzia libreak erabiltzeko gai izatea. Azkenik, koadernoak gida bat izan nahi du lizentzia libreak —zehazki CCak— gure lanari modu koherentean aplikatzeko.

5. Unibertsitatearen eta arte-sorkuntzaren testuingurua

Lehen ere aipatu dugu. Egoki da Arte eta Teknologiako unibertsitate-sail batek egile-eskubideen gaia jorratzea, arrazoi askorengatik, baina, horietatik, gutxienez hiru nabarmendu behar dira. Lehenik eta behin, (1) **Unibertsitatea ezagutza sortzeko gune bat da, zalantzarik gabe;** EHUK, gainera, ideia hori erakundearen lelo bihurtu du: «Eman ta zabal zazu»⁶. Unibertsitatean sortutako ezagutza (fruitua) ematea eta zabaltzea da xedea, beraz; baina nola ematen da fruitu hori, eta nola zabaltzen ezagutza, kontuan hartuz hein handi batean diru publikoarekin finantzatzen dela? Zeren, egiaz, zer baldintzatan itzultzen zaio ezagutza hori unibertsitatearen izateko arrazoi, euskarri eta diru-iturri den gizarteari?

Bigarrenik, (2) **Arte Ederren fakultate** batean horri buruz hitz egiteak egoera konplexu eta, aldi berean, interesgarri batean jartzen gaitu. Esate baterako, egilearen kontzeptuak —edozein ezagutza-arlok berezko duena— protagonismo handiagoa hartzen du hemen, artearen munduan egilearen irudiak duen ezinbesteko tradizio eta pisuagatik. Eta, bestalde, kontuan hartu behar da egiletza hori testuarekin ez ezik irudiarekin, soinuarekin, objektuekin eta abarrekin ere lotuta dagoela, argi eta garbi.

Azkenik, (3) **Arte eta Teknologiako** sail honetan oso ongi dakigu azken teknologiek bide berri ugari zabaltzen dituztela, digitalaren fenomenoak geldiezina dela, eta sare telematikoak komunikazioaren paradigma berriak direla, haiei loturiko aukera eta kontraesan guztiekin.

Honelako testuinguru batean, geure buruari galdetu behar diogu zer rol betetzen dugun kultura ekoizten dugun eragile gisa, eta zer erantzukizun dakarren berekin kultura-produktu horiek zirkulazioan jartzeak.

⁶ Jose Maria Iparragirrek 1853 inguruan sorturiko *Gernikako arbola* euskal kantu tradizionalaren zatia: «Eman ta zabal zazu munduan fruitua».

6. Zientzia-aldizkarien iruzurra⁷ (SCI-HUB)

Unibertsitate-esparruan, ziurrenik, zientzia-aldizkariak izango dira fakultateetan eta ikerketa-zentroetan sorturiko ezagutza zabaltzeko bitartekorik aintzatetsiena, baina ez bakarra⁸. Aldizkarien mende dago, hein handi batean, unibertsitate-jakintza zabaltzea eta eskuragarri egotea; horrez gain, komunitate osoak nazioartean duen ikerketa-jarduera neurtzeko tresna zorrotz eta zehatzena bihurtu da. Hala ere, ikerketaren zabalkundearen ikuspegi murriztaile eta obsesibo hori zalantzan jartzen ari dira batzuk, kontraesan handiak ikusten baitituzte bi elementu hauen artean: alde batean, ikerketaren kudeaketa eta hortik sorturiko etekin handiak monopolizatzen dituzten enpresa gutxi batzuen jardunbidea dago, eta, beste aldean, unibertsitate batek nolakoa izan beharko lukeen, batez ere funts publikoekin finantzatuak, zeinak eredu irekiagoak hobetsi beharko bailituzke eta ahalegin handiagoa egin bere ekoizpen intelektuala sostengu duen gizarte horretara transferitzeko.

Iruzur deitu zien duela gutxi George Monbiot *The Guardian* egunkari britainiarreko zutabegileak, eta zehaztasun handiz laburbildu zuen ideia hori Jorge Sequera UNEDeko irakasle eta ikertzaileak txio

1. Unibertsitate publikoak ikertzaileei ordaintzen die
2. Ikertzaileak inpaktu handiko zientzia-aldizkari batean argitaratzen du (diziplina batzuetan, ikertzaileak/unibertsitateak berak ordainduta)
3. Argialetxeak ez du doako sarbiderik ematen
4. Unibertsitate publikoak berrito ordaintzen du, berak finantzatu duen zerbaiterako sarbidea izateko
5. Artikuluaren berrikoak beste ikertzaile batzuk dira, eta ez zaie ordaintzen lan hori. Doan egiten dute lan argialetxe pribatuentzat
6. Negozio biribila
7. Ikertzaileei open access-en argitaratzeko eskatzen zaie
8. Baina plaza bat izateko, hari eusteko edo irabazteko inpaktu handiko aldizkarietan argitaratu behar dute (itzuli 2. puntura)
9. EBk mezu kontraesankorrak ematen ditu: «Argitaratu open access-en», esaten dizu EBk. «Baina proiektuak edo plazak irabazteko, egin ezazu inpaktu handiko aldizkarietan» (ia guztiak ordainpekoak dira)
10. Eta logika horri aurre egiten diona jazarri egiten dute, ezagutza askatzeagatik: <https://sci-hub.tw>

12

⁷ «Zientzia-aldizkarien iruzurra amaitzear da» George Monbiot-en artikuluko bat da, 2018ko irailean *eldiario.es*-en argitaratua. Egia esan, «Scientific publishing is a rip-off. We fund the research – it should be free» artikuluaeren itzulpena da, zeina aldeaz aurretik *The Guardian* egunkari britainiarraren bertsio digitalean argitaratu baitzen.

⁸ Arte ederren esparruan badaude erakusketak, kontzertuak, emanaldiak, aurkezpenak, katalogoak eta abar bezain baliozkoak diren beste formatu batzuk, baina egia da zientzia-artikuluak direla unibertsitateko zabalkunde akademikoaren adierazle nagusiak, arlo guztietan.

bikain batean⁹. Sequerak hamar puntutan azaldu zuen gurpil zoro biziatu hori, bai eta finantzaketa publikoa duen ikerketak zientzia-aldizkariaren panoramarekin duen harreman bihurria ere. Ildo horri jarraikiz mintzatu zen 2013an Javier de la Cueva abokatua ere «Nola poltsikoratzen duten zure zientzia-argitalpenen dirua»¹⁰ hitzaldian, non erakunde kudeatzaileen inguruan jardun baitzuen, eta, zehatzago, CEDROren jokaera lobbyista, diruzale eta monopolistikoaren inguruan¹¹.

Ezin dugu unibertitateari buruzko iruzkin hau amaitutzat eman Sequerak bere txioan aipatzen duen SCI-HUB¹² proiektuaz hitz egin gabe. Alexandra Elbakyan ikertzaile eta *software*-programatzaileak 2011n sortutako proiektu bat da SCI-HUB, libre eskuratu daitezkeen 70 milioi artikuluko akademiko inguru biltzen dituen artxibo bati lotutako webgune bat¹³. Hori guztia zientzia-argitalpenen sisteman ohikoak diren ordainketa- eta harpidetza-iragazki ofizial guztiei muzin eginez egiten du, eta, beraz, Elbakyan-ek etengabe egin behar die aurre zientzia-argitalpenari loturiko elkarte eta enpresen salaketei. Salatzen duten enpresa horien jazarpena jasaten duen arren, berak dio zerbitzuari eutsiko diola, ezagutza zientifikorako sarbide irekiko politiken alde egiteko.

Hala, unibertstatetako panorama hori izanik, egin daitezke gauzak beste era batera? Unibertstatate batzuk hasiak dira beste bide batzuk irekitzen, eta lizentzia libreak giltzarri dira bide horiek sendotzeko.

13

9 Sequera, Jorge (@jorgesequera), 2018ko irailaren 17a, 10:54 a.m. Txioa. <https://twitter.com/jorgesequera/status/1041611214374293504>

10 De la Cueva, Javier, «Nola poltsikoratzen duten zure zientzia-argitalpenen dirua», Naukas Jardunaldiak, Bilbo, 2013. YouTube-ko bideoa.

11 CEDRO liburu, aldizkari, egunkari eta partituren egile eta editoreen Espainiako elkarte da.

12 Justiziarekin gorabeherak dituzten beste webgune batzuekin gertatzen den bezala, helbideak aldatu egin daitezke, baliteke uneren batean aktibo ez egotea edo, besterik gabe, desagertzea eta beste domeinu batekin agertzea.

13 Van Noorden, Richard, «Alexandra Elbakyan: Paper pirate», *Nature's 10. Ten people who mattered this year*. *Nature*, 2016ko abendua. <https://www.nature.com/news/nature-s-10-1.21157>

7. Jabetza intelektualari buruzko oinarrizko ideia batzuk

En el Estado español la legislación que regula los derechos de los autores y autoras es la **Ley de Propiedad Intelectual** Espainiako Estatuan **Jabetza Intelektualaren Legeak** (JIL) arautzen ditu egileen eskubideak, eta, besteak beste, sorkuntza hauek babesten ditu: literatura-lanak, filmak, musika-lanak, artelanak, marrazkiak, margolanak, argazkiak eta eskulturak edo diseinu arkitektonikoak, eta ordenagailuko joko eta programen arauak.

Aipatu beharrekoa da diseinu industrialak, markak, izen komertzialak eta patenteak **jabetza industrialaren lege** deituriko beste arau batzuen babespean daudela, eta ezaugarri eta oinarri nahiko desberdinak dituztela. Era berean, izena nahasgarria izan daitekeen arren, **irudi-eskubideek** ez dute zerikusirik jabetza intelektualarekin, irudi hori pertsona orok bere irudia «argazki, film edo beste edozein prozeduraren bidez» hauteman, zabaldu edo argitaratzeko duen ahalmen eksklusiboarekin lotuta baitago, eta, ondorioz, beste pertsona batzuek bere baimenik gabe egitea ez onartzeko eskubidearekin (legeak aurreikusitako kasuetan izan ezik)¹⁴.

14

JIL testu luze eta konplexu bat da, artikulua, dekretuak, xedapenak eta eranskinak biltzen dituena, baina, gainera, aldatu egiten da; testu hau argitaratu den unera arte egindako azken aldaketak 2019an¹⁵ argitaratu ziren, esparru hau teknologia digitalen eta sare informatikoak zabaltzearen ondorioz azken urteetan izaten ari den aldaketa izugarrietara nola edo hala egokitzeko. Baina aldaketa horiek egiteko beste arrazoi bat ere bada: kultura-industriei eta egile-eskubideak kudeatzeko erakundeei loturik egon ohi diren zenbait interes talderen presioak.

Legeak jasotzen dituen oinarri guztietatik hiruk haren aplikazio praktikoa baldintzatzen dute, eta legearen ondorio asko azaltzen dituzte.

Lehenik eta behin, Legeak argi esaten du: «Egiletzat joko da izenaren, sinaduraren edo identifikatzen duen zeinuaren bidez lanean egile gisa agertzen dena, non eta aurkako frogarik ez dagoen». Beraz, aurkakorik

14 1/1982 Lege Organikoa, maiatzaren 5ekoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoa. www.boe.es/eli/es/lo/1982/05/05/1/con

15 2/2019 Legea, martxoaren 1ekoa, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina aldatzen duena. <https://www.boe.es/eli/es/l/2019/03/01/2>

pentsa baliteke ere, ez da inolako erregistro edo formaltasunik behar lan baten egilea nor den ziurtatzeko, lan hori **sortzen den unean bertan eskuratzen baita automatikoki egiletza.**

Horrenbestez, **egileak eskubide eskusiboak ditu** bere lanarekiko. Edo, bestela esanda, inork ezin du ezer egin lan batekin —legeak jasotako zenbait salbuespenetan izan ezik— egilearen baimen espliziturik gabe.

Oro har, egileari bi motatako eskubide eskusiboak dagozkio¹⁶: **eskubide moralak eta ustiapen-eskubideak edo eskubide ekonomikoak.**

Ondoren, zuzenean JILa aipatuz, eskubide horiek zeintzuk eta zertan diren azalduko dugu:

Eskubide moralak lanaren egileari dagozkio eta ukaezinak dira; beraz, ezin dira laga eta ezin zaie uko egin. Eskubide horietako batzuek ez dute denbora-mugarik, esate baterako, egiletza aitortzeko eskubideak edo lanaren osotasunerako eskubideak.

Hala, legeak hauek egiteko ahalmen eskusiboa aitortzen die egileei:

- Bere lana **zabaldu behar den eta nola zabaldu behar den** erabakitzea.
- Zabalkunde hori **bere izenean, ezizen edo zeinu batekin edo anonimo gisa** egin behar den zehaztea.
- Lanaren egile gisa **aitor** dezaten eskatzea.
- Lanaren osotasuna errespetatzea, eta bere interes legitimoak edo ospari kalte egingo dien lanaren edozein deformazio, aldaketa, bestelakotze edo eraso eragozte.
- Lana **aldatzea**, hirugarrenek eskuratutako eskubideak eta interes kulturalako ondasunak babesteko eskakizunak errespetatuz.
- Lana merkatutik **erretiratzea** bere uste intelektual edo moralak aldatu izanaren ondorioz, ustiatzeko eskubideen titularrei kalte-ordainak ordainduta (ondoren, egileak erabakitzen badu bere lana ustiatzeari berrekitea, dagozkion eskubideak aurreko titularrari eskaini beharko dizkio lehendabizi, eta jatorrizko baldintzen antzekoetan, zentzunez jokatu).
- Lanaren ale bakar edo bitxia **eskuratzea** beste pertsona baten eskuetan dagoenean, dibulgatzeko eskubidea edo dagokion beste edozein eskubide baliatzeko.

¹⁶ Badaude beste eskubide batzuk ere, hala nola parte hartzeko eskubidea, kopia pribatu bakoitzeko ordainsaria eta abar, baina, gauzak sinpletzeko, funtsezkoenei lotuko gatzazkie.

Ondare- edo ustiapen-eskubideek, bestalde, bere lana nola erabil daitekeen erabakitzeke aukera ematen diote egileari. Lanak baimenik gabe erabili ezin badira ere, legeak jasotako salbuespenetan izan ezik, hirugarrenei laga dakizkieke.

- **Erreprodukzioa:** lana komunikatzeko aukera eta lan osoaren edo zati baten kopiak eskuratzeko aukera ematen duen euskarri edo bitarteko batean finkatzea lana.
- **Banaketa:** jatorrizko lana edo haren kopiak jendearen eskura jartzea, salmentaren, alokairuaren eta maileguaren bidez, edo beste edozein modutara.
- **Komunikazio publikoa:** ekintza honen bitartez jende ugari izan dezake eskura lana, bakoitzari ale bat aldeztatik aurretik banatu gabe.
- **Eraldaketa:** lan bat itzuli, moldatu edo beste edozein modutara aldatzea, eta, ondorioz, handik beste lan bat eratorzea.

16 Halaber, badaude beste eskubide batzuk ere, hala nola «parte hartzeko eskubidea» eta beste zenbait, guztiak ere oso eztabaidatuak eta kopia pribatuak egiteko eskubidearekin lotuak, bertsio guztietan. Horren adibide dira mailegu publikoagatik ordainsaria jasotzeko eskubidea edo unibertsitateetan kopia digitalak egiteagatik ordainsaria jasotzeko eskubidea. Eskubide horiek ez dute egonkortasunik legearen aldetik, eta oraindik orain aldaketa eta errekurtsu ugari egiten zaizkie, argudio ahul samarren gainean eraikiak baitira; hurbilago daude zenbait talderen interesetatik, kulturaren arloan berezko lege bihurtzetik baino.

Ustiapen-eskubideek denbora-muga bat dute, eta hori igarotakoan, lan horiek jabari publikora pasatzen dira. Eskubide horiek egilea hil eta 70 urtera iraungitzen dira. Epe horiek Europako herrialde guztietan badaude ere, ez dira berdinak estatu guztietan. Espainiako Estatuan, lege-kontuengatik, 1987ko abenduaren 7a baino lehen hildakoen eskubideak egilea hil eta 80 urtera iraungiko dira.

Legeak egileei eskubide eskusiboak ematen dizkien bezala, eskubide horiei salbuespen batzuk ere ezartzen dizkie, muga deiturikoak, hala nola:

- Hezkuntza edo ikerketa zientifikoko xedeetarako aipatu, erreseina egin eta ilustratzeko aukera.
- Parodiarako erabiltzea. Betiere aldeztatik aurretik zabalduko lan batekin egiten bada, lan horrekin nahasteko arriskurik eragiten ez badu, eta jatorrizko lanari edo egileari kalte egiten ez badio.

- Panorama-askatasuna deritzona: parke, kale, plaza edo bestelako bide publikoetan behin betiko finkatuta dauden lanak libreki erabiltzeko aukera ematen du, eta libreki erreproduzitu, banatu edo komunikatu daitezke margolan, marrazki, argazki eta ikus-entzunezko baliabideen bidez.

Muga horiek eta salbuespen horietan jasotako erabilera-askatasunak lan bat ikerketarako edo irakaskuntzarako libreki erabil daitezkeela iradoki dezaketen arren, legeak erabileraren inguruan zehazten dituen ñabarduren eta, batzuetan, egileari ordainsari bat ordaindu behar izatearen ondorioz, aipamena ilustratzeko eskubidea (ikusizkoa) eta antzeko eskubideak ikasgelatik kanpo baliatzea oso zaila izaten da ia beti.

Horren guztiaren ondorio zuzena hauxe da, gustatu ala ez, eta legea ezagutu ala ez: **lan baten egile izateko, nahikoa da geuk sortu izatea; ez da beharrezkoa inolako izapiderik egitea.** Eta, ondorioz, **inork ezin du ezer egin gure lanarekin guk horretarako berariaz baimena ematen ez badiogu,** legeak egileari ematen baitizkio eskubide guztiak.

Hala ere, behin baino gehiagotan aipatu dugunez, gure lanak zabaltzea eta beste era batera erabiltzea nahi badugu, nahi hori esplizituki adierazi beharko dugu, nola edo hala. Ikus dezagun nola egin dezakegun hori, eta nondik datozen ideia horiek.


8. *Software*arekin hasi zen guztia

«Azken hogei urteotan, ez materia, ez espazioa eta ez denbora ez dira izan betidanik izan diren bezalakoak. Berrikuntza handi horiek arteen teknika guztia eraldatu zain egon behar da» idatzi zuen Paul Valéry-¹⁷ 1928an, eta ohartarazi zigun bere mundu «modernoko banaketa-, erreprodukzio- eta are produkzio-formulak» errotik aldatzen ari zirela; berrikuntza handi horiek aipatu zituenean, une hartako azken teknologiak izango zituen gogoan, hala nola zinematografoa edo irratia.

18 Ia ehun urte geroago, teknologia digitala bete-betean sartu denean, ezin dugu kultura-ekoizpenaren testuinguruan pentsatu orain dela hamabost edo are hamar urte pentsatzen genuen bezala, horrek egoeraren interpretazio okerrak edo garaiz kanpokoak egitera eraman baikaitzake. Koaderno honetan behin baino gehiagotan aipatzen da situazionisten adibidea, eta zer jarrera erabat permisiboa zuten beren argitalpenak kopiatu eta banatzearekiko, jabetza intelektualaren ordezeko tratamenduaren benetako aitzindari gisa. Hala ere, genealogia arakutzen badugu egungo egile-eskubideen eredia baino eredu irekiagoen bila, ohikoagoa da begirada *software* librearen fenomenorantz zuzentzea, esparru horretan borrokatu baitziren egiletzaren, egile-eskubideen eta lan bat erabiltzeko askatasunaren inguruko gudu guztiak; kasu horretan, noski, kode informatikoari lotuta.


XX. mendeko 70eko hamarkadaren erdialdean, programazioaren eta *software*-idazketaren ingurune sortu berriak enpresa teknologiko handien presioa jasan behar izan zuen; izan ere, makinaren (*hardware*aren) merkataritza nagusi zen merkatu hartan, *software*ak ere etekin ekonomikoak eman zitzakeen, behar bezala «babesten» bazen. *Hardware*a merkaturatzen ohituta zeudenez, kodea *hardware*a funtzionarazten zuen zerbait besterik ez zen, programatzaileek libreki partekatu, hobetu eta manipulatzeko zutena. *Hardware*a eta *software*a bereizita merkaturatzeak errentagarritasun komertzialerako aukera berriak eskaintzen zituen; horretarako, kode eta programen zirkulazio librea murriztu behar zen, eta sorkuntza informatikoak erabiltzeko eta aztertzeko aukerak mugatu (hots, ordura arte unibertsitateetako laborategi eta sailetan egin ohi zutena mugatu, adibidez). Murrizketa berriak aplikatzeko modua erabiltzaileekin hitzarmenak egitea zen, lizentzien bidez. Lizentzia horiek lege-dokumentuak ziren, programa informatiko orori lotuak; haietan, *software* bat zer baldintzatan erabil

17 Valéry, Paul, «La conquista de la ubicuidad», in *Piezas sobre arte*, Madril: Antonio Machado Libros, 2005.



A

KATE
LA HIL
ai - Cassi
And
Destroy



TOWN
OF
HOUSTON
SKATE
SPAIN



zitekeen zehazten zen, eta erabiltzaileek egin ezin zituzten gauzak zerrendatzen ziren.

Industria informatikoaren jarrera murriztaile berriarekin ados ez zegoen pertsona multzo batek erantzun egin zion industriaren murrizketei, ordea, eta hortik sortu zen *software* librea: ordezko aukera jasangarri eta erreal bat proposatu zuten, konpainien eredu pribatiboen ordez. *Software* librea ordezko erreal gisa hain izan zen eraginkorra, gaur egun, handik zenbait hamarkadatar, *software* libreak aukera bideragarri eta jasangarria izaten jarraitzen baitu, eta gai da monopolio handiekin aurrez aurre lehiatzeko: Apple, Microsoft, etab. Hala ere, ziurrenik *software* librearen proiektuko aurkikuntza interesgarriena izan zen oinarriak ezarri zituela askatasunaren ideia birformulatzeko, bere lau askatasun ospetsuen bidez; gero, oso esparru desberdinetako erabiltzaileen komunitate zabal batek erabiliko zuen ideia hori. Ordudanik, *software* bat librea da askatasun hauek eskaintzen eta bermatzen baditu, Otik 3ra zenbakituta:

0: programa edozein helburutarako erabiltzeko askatasuna (erabilera).

1: programak nola funtzionatzen duen aztertzeko eta hura aldatzeko askatasuna, norberaren beharretara moldatzeko (azterketa).

2: programaren kopiak banatzeko askatasuna; hala, beste erabiltzaile batzuei lagundu dakieke (banaketa).

3: programa hobetzeko eta hobekuntza horiek publiko egiteko askatasuna, komunitatearen onurarako (hobekuntza).

Gainera, 1 eta 3 askatasunek iturburu-koderako sarbidea eskatzen dute, *softwarea* haren iturburu-koderik gabe aztertu eta aldatzea ez baita oso bideragarria.

Askatasunaren ideia horrek desberdindu egiten ditu askatasuna eta doakotasuna (*free* terminoa ingelesez anbigua baita); «libre» terminoak «dena libre» diogunean adierazten duguna esan nahi du (askatasuna), ez «barra libre» diogunean esan nahi duguna (doakotasuna)¹⁸. Beraz, «askatasuna» bezain kontzeptu labainkorraren definizio operatibo bat egiteaz gain, askatasun hori babesteko eta bermatzeko tresna nagusia eratu zuten: *General Public License* (GPL) lizentzia.

Gaur egun oraindik erabiltzen den GPL lizentziaren arduradun nagusia Richard Stallman da, *software* librearen mugimenduaren programatzaile sortzaileetako bat eta haren erreferentzia nagusia;

18 Stallman, Richard M., *'Software' libre para una sociedad libre*, Madril: Traficantes de Sueños, 2004.

lizentzia hori laurogeiko hamarkadaren amaieran sortu zen, programa informatikoen erabiltzaileen eskubideak babesteko. Ez da *software* librerako lizentzia bakarra, baina *copyleft* ideia bereziki azpimarratzeagatik nabarmentzen da. Klausula moduko bat da, programa birbanatzean «besteei oinarrizko askatasunak ukatzen dizkieten murrizketak» eranstea eragozten duena.¹⁹ Hots, kasu honetan, programa bat sortu zenean zuen askatasun-maila berarekin banatzen jarraituko dela bermatzen du.

Baina, aurrerago ikusiko dugunez, *copyleft* bere jatorri juridikoaz harago doan kontzeptu bihurtu da denborarekin, eta *copyright* terminoaren eta horrek dakarren guztiaren ordezko gisa erabiltzen da; hala, kultura librearen mugimenduaren erdigunean kokatzen da.

9. Kultura librea

Software librearen munduko ideiak eta kontzeptuak kulturaren mundura eramateko saiakera gisa sortu zen kultura librea. *Software* libreak adierazten du kode zati bat edo programa oso bat kopiatu, banatu, aldatu eta are helburu komertzialetarako erabil daitekeela, haren sortzaileak nahi badu. Kulturaren munduan horrelako zerbait izatea posible izan liteke? Badakigu egile-eskubideak erabat bermatzaileak direla egilearentzat, eta haren lana babestu ohi dutela, eta lehenespenez edozein erabilera eragozten dutela. Alabaina, lege-babes horrek ez ote du atzera-bueltarik? Erantzuna baiezkoa izango litzateke, betiere egilearekin hitz egingo bagenu eta baimena emango baligu, noski. Baina ezin izaten da beti egilearekin harremanetan jarri, arrazoi askorengatik, eta ezin izaten dugu haren iritzia jakin. Are gehiago hil bada eta haren eskubideak oinordekoek kudeatzen badituzte.

Begi-bistakoa da kode edo programa informatiko baten eta artelan, abesti edo film baten arteko aldea izugarria dela, eta, hain zuzen, horixe da kultura librearen proiektuak duen erronka: *software* librearen ekarpen kontzeptual, politiko eta prozedurazkoetatik ikastea, eta horiek kulturaren mundura moldatzen saiatzea.

Gaur egun, kultura librearen kontzeptua eremu zabal eta askotarikoa da, beste mugimendu, proiektu, pentsamendu-korronte, etab. ugari biltzen dituena, baina guztiek ere bereizgarri hau dute: kritikoak dira *copyright*aren murrizketekin eta Jabetza Intelektualaren Legeekin,

¹⁹ Stallman, *op. cit.*, 61. or.

WAVE
KATEZ

MI PIN
7352





haien ustez arau horiek sormena²⁰ eta ezagutzarako sarbidea mugatzen dutelako. Hortik aurrera, kultura librearen magmaren barruan, *open access*, *remix* kultura, *copyleft* edo, besteak beste, Wikipedia proiektua aurkitu ditzakegu. Betiere, *software* librearen lau askatasun ospetsuak erreferentzia direla, eta, sarri, zorroztasun-maila desberdinak aplikatuz, malgutasun handiagoz edo txikiagoz.

Kultura librearen esparrua oso malgua den arren, kontzeptuaren definizio operatibo bat emateko ahaleginak egin dira. Free Cultural Works Project-ek 2006an egindako proposamenak dirudi erreferentzia sendoena, batez ere definizioa egiteko ahalegin horretan izen handiko jendeak hartu zuelako parte (Möller, Lessig, Stallman, Mako Hill, Beesley)²¹. Izan ere, funtsezko erreferentzia da Wikimedia Fundazioa edo *Creative Commons* proiektuetarako, besteak beste, lan bat librea den ala ez erabakitzeko.

Definizioa bera pixka bat konplexuagoa da lerro pare batean esan litekeena baino, baina, funtsean, azpimarratzen du «kultura-lan libre» edo «eduki libre» bat izateko, lan batek *software* librearen funtsezko lau askatasunak eskaini behar dituela, honela moldatuta²²:

- Lana erabiltzeko eta hura erabiltzeak dakartzan onurak baliatzeko askatasuna.
- Lana aztertzeko eta eskuratutako ezagutza aplikatzeko askatasuna.
- Informazioaren edo adierazpenaren kopia osoak zein partzialak egin eta birbanatzeko askatasuna.
- Aldaketak eta hobekuntzak egiteko eta horren ondorioz sortutako lanak banatzeko askatasuna.

Ziurrenik, kultura librearen aldeko mugimenduaren ondorio ezagunenetako bat *Creative Commons* lizentziak izan dira, jarraian ikusiko dugunez. Lizentzia horiek guztiak ez dira hain libreak, ordea, eta haien benetako asmoei buruzko eztabaida etengabea da.

20 Ideia horren alde dagoen egile nabarmen bat Lawrence Lessig da, abokatua eta *Creative Commons*-en sortzaileetako bat; ikus, esate baterako, haren «Laws that choke creativity» TED hitzaldia, 2007ko martxokoa. https://www.ted.com/talks/lawrence_lessig_laws_that_choke_creativity

21 freedomdefined.org

22 Definition of Free Cultural Works [Kultura-lan libreen definizioa]: <https://freedomdefined.org/Definition/Es>

10. Copyleft

Copyleft terminoa aipatu dugu lehen, *software*ari buruz jardun dugunean. Ez dago argi kontzeptu horren jatorria zein den, baina Stallman-ek *software* librearen esparruan kokatu zuen behin betiko, eta, denborarekin, «kultura-mugimendu baten ikur»²³ bihurtu da. Zalantzan jartzen du *copyright* eredua eta haren sistema zurrun eta murritzaila osoa, kultura-sorkuntzaren kate osoari eragiten diona: ekoizpenari, zabalkundeari, banaketari eta sarbideari eta, ikusi dugunez, baita hezkuntzari ere, kultura-materialen erabilerari ezartzen dizkion mugak direla eta.



Hortik aurrera, kultura libreari eta jabetza intelektualari buruzko eztabaidaren parte izan da *copyleft*, eta hainbat ideia eta proposamen biltzen ditu: hasi *software* librearen ekarpenen oinordeko den ikuspegi zorrotzetik, eta ez mugimendutzat ez «ideologiatzat» jotzen ez dutenetaraino, haientzat «hainbat praktika, instantzia eta lizentzia komertzial biltzen dituen termino orokor

hutsa» baita²⁴. Baina, zalantzarik gabe, *copyleft* alternatiba bat da gaur egun *copyright*arentzat, eta garbi adierazten du hori *copyright*aren C alderantzikatuak.

26

11. Lizentzia libreak (dena ez da CC)

«Internacional Situacionista aldizkarian argitaratutako testu guztiak libre erreproduzitu, itzuli edo moldatu daitezke, baita jatorria adierazi gabe ere.»²⁵

Baliteke 1958ko Internazional Situazionistak, bere aldizkarian adierazpen hori argitaratuz, lehenetariko saiakera kontzientea egin izatea baimenak lizentzia libre baten antzeko formatu batean emateko. Alegia, aldez aurretik eta esplizituki adierazten du argitalpenaren hartzaileak badituela aurretiaz eta baimenik eskatu gabe argitalpena erabiltzeko askatasun batzuk; kasu honetan, guztiak.

23 Zenbait egile, *Copyleft: Manual de uso*, Madril: Traficantes de Sueños, 2006.

24 Wu ming, «Apuntes inéditos sobre *copyright* y *copyleft*», 2005. https://www.wumingfoundation.com/italiano/outtakes/apuntes_copyleft.htm

25 *Internationale situationniste* aldizkariaren 2. alean jasotako testua, Internazional Situazionistak 1958ko abenduan argitaratua. Hemen eskuratu daiteke: <http://situaciones.info/revista/category/materiales-situacionistas/>

Hala eta guztiz ere, lizentzia libreak edo eduki irekikoak askoz berriagoak dira, eta haien helburua, neurri handiagoan edo txikiagoan, hauxe da: lizentziadun lana modu ireki, malgu eta libreagoan eskuratu ahal izatea, *copyright*eko legeek eta jabetza intelektualeko legeek lehenespenez ezartzen duten baino, normalean ezer gutxi izaten baita hori. Egileak bere lanaren zenbait erabilera alde aurretik baimentzeko erabiltzen ditu, eta azken erabiltzaileak (beste egile bat ere izan daiteke) zenbait askatasun ditu, baimenik eskatu behar izan gabe, baimenak alde aurretik dagoeneko eman direlako: kopiatzeko baimena, aldatzeko baimena, banatzeko baimena eta abar.

Lizentzia horiez ari garenean, joera dugu *Creative Commons* lizentziak bakarrik aintzat hartzeko. Baina ez litzateke bidezkoa horiek bakarrik daudela edo egon direla pentsatzea. Lehen GPLaz geroztik, *copyright*a malgutzeko eta Jabetza Intelektualaren Legearen ondorioz lehenespenez dituen baldintza murriztaileak samurtzeko ahalegin ugari eta askotarikoak egin dira; ondorioz, halako lizentzia-proposamen ugari aurkitu daitezke online zerrenda askotan. Lizentzien inbentario osatuenetako bat da, esate baterako, Lawrence Liang-en *Guide to Open Content Licenses*²⁶ izenekoa, Rotterdameko Piet Zwart Institutek 2004an argitaratua, lehen CCak agertu eta bi urte eskasera. Seguruena gidarik osatuena ez bada ere, ordudanik igaro den denbora dela eta, oso erreferentzia interesgarria da, denbora errealean eginda dagoelako. Haietako asko martxan zeuden une hartan, eta CCak iritsi berri batzuk baino ez ziren.

27

Kultura librearen aldeko apustu irmoa egin zutelako eta ikusizko arteen arloan aitzindariak izan zirelako, bereziki lizentzia horietako bi azpimarratu behar ditugu, nolabait beren garaiari aurreratu zitzaizkionak:

2000. urtean Parisen egindako *Copyleft Attitude* jardunaldietatik sortu zen **Arte Libre**²⁷ lizentzia, zeina *software* librearen ideiak artearen mundura eramane zituen lehen esperientziatzat jo baitaiteke; helburu nagusitzat kulturarako sarbide librea sustatzea zuen, eta jendeak artelanak sorkuntzarako erabil zitzaizkionak.

Platoniq²⁸ arte-kolektiboak 2004an **Aire Incondicional** lizentzia sustatu zuen Europako proiektu ibiltari baterako, eta hura ere *software* librearen lizentzietan oinarritzen zen: lanak erreproduzitu, banatu eta eraldatzeko baimena ematen zuen. Lizentzia horren barruan «irabazi-

26 Bertsio osoak aurkitu daitezke *online* archive.org eta monoskop.org webguneetan.

27 <https://artlibre.org>

28 <http://platoniq.net>

asmoa» bezain kontzeptu korapilatsua definitzeko ahalegina egin zen, eta arreta eskaini zitzaion une hartan jendartean ikaragarri zabaltzen ari zen P2P²⁹ fenomenoari.

Gaur egun, ordea, CCak dira lizentzia hegemonikoak, argi eta garbi, eta beste asko zokoratu dituzte; baina ez guztiak, bereziki *software*aren arloan.

CCak dira gehien erabiltzen direnak, gutxienez hiru arrazoi hauengatik:

Erabilgarriak dira: Erakunde askok nazioartean urte askoan egin duten ahaleginei esker, lizentziak hizkuntza askotara itzulita daude, eta, horrez gain, herrialde askotako legerien berezitasunetara moldatu dira; beraz, nazioartean legezko balioarekin erabil daitezke.

Erabiltzen errazak dira: Era berean, jakinik jabetza intelektualeko arauak benetan konplexuak direla eta jende gehienarentzat ulertzen zaila den hizkuntza batean idatzita daudela, ahalegin handia egin da baliabide erabilerrazak izan daitezen, irakurketa-maila desberdinekin edo «hiru geruzako diseinua» erabiliz, CCk deskribatzen duen moduan. Lehen geruzak, «**Lege-kodea**» izenekoak, lege-argotak berezko duen hizkera eta testu-formatua dauzka. Bigarren geruza bat dago, «**Gizakiok irakurtzekoa**» edo «**Commons deed**» izenekoa: lizentzia bakoitzaren alde atsegin eta ulerterraza da, eta egileek eta erabiltzaileek lizentzia bakoitzaren irismena ulertzeko behar duten gutxieneko informazioa ematen du. Azkenik, «**Makinak irakurtzekoa**» izeneko geruza dago; nabigatzaileei, bilaketa-motorrei eta programa informatikoei CC lizentziekin zer lan eskuratu daitezkeen jakiteko aukera ematen die.

Balio didaktikoa dute: Erraz erabiltzen direnez, CC lizentziek jabetza intelektualaren munduan lehen urratsak egiteko balio izan dute, eta zenbait lege-kontzeptu hain gordinak ez izatea lortu dute, hala nola «aitortza», «lan eratorria», «erreproduzio- eta komunikazio-eskubideak» eta abar. Hein handi batean, aipaturiko «gizakiok irakurtzeko» geruza ulerterraz horri zor zaio hori, eta geruza hori lizentzia bera ez den arren, baldintza garrantzitsuenak laburbiltzen eta adierazten ditu.

29 Ordenagailutik ordenagailurako sareetako konexioa: *peer-to-peer*, parekoen sarea, berdinaren arteko sarea edo parekoen arteko sarea (P2P, ingelesez).

12. Creative Commons

CC lizentziak Estatu Batuetan sortu ziren 2000ko hamarkadaren hasieran, «mundu osoaren eskura egongo den ezagutza- eta kultura-ondare publiko bat eraikitzea helburu zuen irabazi-asmorik gabeko erakunde bat»en eskutik³⁰. Kultura librearen inguruko eztabaidaren esparruan, doako tresna juridiko batzuk garatzea lortu zuten, zeinak jabetza intelektualaren arloan indarrean zeuden arauekin kritikoa zen korrante baten beharretara moldatzen baitziren.

Lizentzia horiek kultura-lan bati buruzko oso galdera zehatzei erantzuten diete, argi eta garbi: Kopiatu daiteke? Alda daiteke? Helburu komertzialetarako erabil daiteke? Edonork egin diezazkiokegu geure buruari galdera horiek norberarena zein besteena den kultura-produktu baten inguruan. Badakigu erantzuna zein den, egileak horri buruz ezer esan ez badu. EZIN DA EZER EGIN. CCek, ordea, ahalbidetu egiten dute sortzaileek argi esatea zer nahiago duten, galdera horiei aurretiaz erantzunda. Hain zuzen, galdera horiei erantzutearen ondorioz, eskaintzen dizkiguten aukera guztiak konbinatuz, gutxienez sei lizentzia desberdin lor ditzakegu. Gehiago dira, baina gure testuinguruan sei hauek erabiltzen dira gehien:

CCek eskaintzen dizkiguten aldagai posibleak kontzeptu hauen arabera dira:



Aitortza – Attribution (BY):

Lanaren zenbait erabilera onartzen dira, betiere jatorrizko egilea nor den aitortzen bada.



Erabilera ez-komertziala – Non Commercial (NC):

Lanaren helburu komertzialik gabeko zenbait erabilera onartzen dira.



Lan eratorririk ez – No Derivatives (ND):

Lanaren zenbait erabilera onartzen dira, betiere aldaketarik egiten ez bada.



Berdin partekatu – Share Alike (SA):

Lanaren zenbait erabilera onartzen dira, baldin eta jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatzen bada.

³⁰ <https://creativecommons.org>

Beraz, konbinazioak eginez, sei lizentzia ohikoenak osatzen dira. Kontuan izan behar da gure lanerako lizentziotako bat hautatze hutsarekin hura kopiatzeko baimena ematen ari garela, gutxienez, betiere jatorrizko egilea nor den aitortzen bada. Hortaz, kopiak egiteko aukera eta **jatorrizko egilea aitortzeko derrigortasuna** izango ditu gutxienerako abiapuntu edozein lizentziak. Hauek dira lizentzia motak:



Aitortza (CC BY):

Besteei lana banatu, nahastu, moldatu, aldatu eta haren gainean eraikitzeko baimena ematen zaie, baita helburu komertzialekin ere.



Aitortza – BerdinPartekatu (CC BY-SA):

Besteei lana banatu, nahastu, moldatu, aldatu eta haren gainean eraikitzeko baimena ematen zaie, baita helburu komertzialekin ere, betiere lizentzia berarekin edo antzekoarekin egiten bada.



Aitortza – LanEratorririkEz (CC BY-ND):

Lana helburu komertzialetarako erabil daiteke, baina ezin da lan eratorririk sortu.



Aitortza – EzKomertziala (CC BY-NC):

Lana banatu, nahastu, moldatu, aldatu eta haren gainean eraikitzeko baimena ematen zaie, betiere helburu komertzialekin egiten ez bada.



Aitortza – EzKomertziala – BerdinPartekatu (CC BY-NC-SA):

Lana banatu, nahastu, moldatu, aldatu eta haren gainean eraikitzeko baimena ematen zaie, betiere helburu komertzialik gabe eta lizentzia berarekin edo antzekoarekin egiten bada.



Aitortza – EzKomertziala – LanEratorririkEz (CC BY-NC-ND):

Ezin da helburu komertzialekin erabili, ez eta lan eratorririk sortu ere.

Honez gero, begi-bistakoa da ez dela nahikoa lan batek *Creative Commons* lizentzia duela soilik adieraztea, bestelako xehetasunik eman gabe, ez baita behar den informazio guztia ematen. Badakigu material hori kopiatu egin daitekeela, baina ez zer baldintzatan egin daitekeen, aldaketarik egin daitekeen, edo helburu komertzialekin erabil daitekeen. Haien arteko desberdintasunak garrantzitsuak dira, eta, beraz, ezinbestekoa da zehaztea aukera guztietatik zein den gurea. Hain dira lizentzia ezberdinak, ezen *Creative Commons* erakundeak berak, lehen aipatutako kultura-lan librearen definizioari jarraituz, lizentzia horietako bi «Approved for Free Cultural Works» izendatu baititu, hots, kultura-lan libreerako onetsiak: CC BY eta CC BY-SA. Kultura-lan libreen definizioaren arabera, aldatzeko ahalmena edo erabilera komertziala mugatzeak lan baten askatasun-maila mugatzen du³¹.

13. Lizentziak nola erabili

Lizentzia horiek gure lanarekin nola erabiliko ditugun pentsatu aurretik, bi alderdi nagusi aztertzea komeni da. Lehenik eta behin, funtsezkoa da ohartzea lizentzia bat erabiltzen dugula eta, zein erabiltzen dugun esplizituki adierazten ez badugu, lehenespenez *copyrighta* edo jabetza intelektualaren legea aplikatzen dela. Hau da, ezer egiten ez badugu, babesa erabatekoa izango da. Inork ezin du ezer egin gure lanarekin.

Hortik abiatuz, gure aukera zein den argi azaldu behar dugu, baina erabiltzen dugun euskarri edo formatuaren mende dago guztia. Edozein kasutan ere, gure aukeraren eta hautatu ditugun baldintzen inguruan eman dezakegun informazio erantsi guztia ongiatorria izango da. Are gehiago kontuan hartzen badugu mundu guztiak ez dakiela nola funtzionatzen duten lizentzia libreek, nahiz eta CCek hamabost urtetik gora daramaten abian, esate baterako.

Bigarrenik, garrantzitsua da azpimarratzea *Creative Commons*ek gure esku jartzen duela bere lizentzia sorta osoa, bai eta gure hautapena pertsonalizatzeko behar ditugun tresnak ere, baina horiek erabiltzeko ez da inolako erregistrorik eskatzen.

31 <http://freedomdefined.org>

13.1 Lizentzia bat aukeratzea

Koaderno honetan azaldutako guztia nahikoa izango litzateke eskura dauden lizentzietako bat aukeratu eta gure lanari aplikatzeko, ondoren zehaztuko dugun moduan. Hala ere, *Creative Commons* erakundeak gure eskura jarri du tresna soil bat bere webgunean, aukeraketa errazago egin dezagun. Gure lanerako nahi ditugun erabilerei buruz hiru galdera errazi erantzunez, interfaze interaktibo batek denbora errealean erakusten digu zer lizentziak erantzuten dien gure interesei, eta gure eskura jartzen du, hiru maila edo geruza eskainiz: Commons Deed, lege-kodearen URLa eta makinatarako metadatuak bi formatutan, aurrerago ikusiko dugunez. Hori guztia, hogeita hamar hizkuntzatan baino gehiagotan.

Zer nahi dugun erabakitzen dugunean, nola sartuko dugu lizentzia gure lanean?

13.2 Paperezko argitalpenetan

32

Argitalpen fisiko batean oso erraz egin daiteke. Aldizkari, liburu edo disko batean nahikoa da beste kreditu motekin, argitaletxearen informazioarekin eta abarrekin batera adieraztea, eta, lekurik izanez gero, komeni da lizentziari buruz ahal dugun informazio guztia eranstea, banatzeko baldintzak ulergarri egiteko.

Argitalpen kolektiboak direnean, hainbat egile edo bitarteko (testua, irudia, audioa) dituztenak, lizentziak lan osoari eragin diezaioke, edo desberdintasunak zehaztu daitezke. Adibidez, testuek lizentzia bat izan dezakete, eta beste bat irudiek. Lanean agertzen diren materialetako batek *copyright* murriztailerik baduen ere adieraz daiteke.

13.3 Erakusketa-aretoan

Lana espazio fisiko batean erakusten denean ere, ikusgai jarri behar dugu gure lizentzia. Eta hori egiteko erarik logikoena da horrelakoetan eman ohi diren beste informazio batzuekin batera ematea. Adibidez, erakusketa bateko lan guztiek lizentzia bera badute, aretoko gainerako informazioekin batera adieraz daiteke. Lan bakar bati erreferentzia egiten bazaio, adierazpenak ohikoekin batera egin daitezke (izenburua, egilea, urtea, teknika, etab.), ahalik eta informazio zabalena erantsiz. Gutxienez CC erakundeak eskaintzen dituen jabari publikoko ikurren konbinazio egokia adierazi behar da, honelako siglekin batera: CC BY-NC-SA. Hortik aurrera, lekuak uzten digun guztia erants dezakegu — URLa, QR kodea —, gure benetako asmoa ezagutzera emateko.

13.4. Leku publikoetan

Lan fisiko bati buruz ari garenean, ezin dugu ahaztu lan bat kalean dagoenean legeak egileen eskubideak mugatzen dituela, salbuespen gisa, eta lan hori erabiltzea libre dela, «panorama-askatasuna» deritzonagatik. Salbuespen hori ez da berdin kudeatzen estatu guztietan, eta alde nabarmenak daude. Espainiako Estatuan, libre da kalean modu finkoan dauden lanen, monumentuen eta bestela babestuta ez dauden eraikinen argazkiak, bideoak eta margolanak egitea, baita helburu komertzialekin ere; ez da hala beste herrialde batzuetan, ordea, hala nola Frantzia, Italia, Belgika edo Grezia. Horrek guztiak ez dio eragiten edozein pertsonak erabilera pribaturako egiten dituen argazkiei, halere.

13.5. Eremu digitaletan

Objektu digitaletan edo multimedietan, haiek erabiltzeko lizentzietan buruzko informazioa fitxategi digital guztiekin batera joan ohi diren metadatuak sar daitezke. Lehen ere aipatu dugunez, makinenzako metainformazio horrek lagundu egiten die nabigatzaileei, bilaketa-motorrei eta beste edozein *software*ri dokumentu batek izan ditzakeen erabilerak identifikatzen, baina, horrez gain, egileari, sortze-datari eta abarri buruzko datuak ematen ditu. *Creative Commons*-ek, zehazki, bi gomendio egiten ditu, webgunean erabiliko den ala fitxategi digital autonomo gisa erabiliko den kontuan hartuz

33

13.6. HTML + RDFa

HTML formatuan emandako informazio hau webguneen edo blogen kodean txertatuta (kopiatu eta itsatsita) joaten da. HTML luzapen batzuk dira, makinei informazio semantiko irakurgarria sartzeko aukera ematen dietenak.

13.7. XMP

Egileari, lizentziari, baimenei eta abarri buruzko informazioa, beste datu askorekin batera, XMP metadatu bidez erants dakioke fitxategi bati. Adobe *software*-konpainia ahaltsuak sortu zuen sistema hau jatorrian, baina gaur egun, ISO estandar bihurtu da, eta gehienbat PDF dokumentuetan eta ohiko irudi-formatuetan erabiltzen da: JPEG, PNG edo TIFF.

Bi kasuetan, *Creative Commons* webgunearen bidez eskaintzen dizkigu baliabide horiek lizentzia jakin bat hautatzen dugunean, gure material digitalean sar ditzagun. «HTML + RDFa» kopiatu eta gure webgunean edo blogean itsats dezakegu, edo, XMP metadatuetarako, deskargatu daitekeen fitxategi bat erabil dezakegu. Irudiak kudeatzeko edo editatzeko programa askok datu horiek inportatzeko aukera ematen dute.

13.8. Metadatuaren beste sistema batzuk

Beste sistema batzuk ere badaude metadatuak kudeatzeko, bereziki irudienak. EXIF eta IPTC datuak izango dira seguruenik ezagunenak. Argazki-kamera digital ia guztiek dauzkate horrelako datuak, bereziki irudiak hartzeari buruzko datu teknikoei buruzkoak. Geolokalizazioa eta egileari eta *copyright*ari buruzko datuak ere jaso ditzake, baina funtzio horiek enpresa fabrikatzailearen esku daude. Metadatuaren kudeaketari lotutako arazoetako bat da, hain zuzen, ezaupide aurreratu batzuk behar direla, eta gehienetan, hainbat edizio-aukera ematen dituzten hirugarrenen aplikazioak erabili behar izaten dira.

34

13.9. Audioa eta bideoa

Audioko fitxategi digitalei dagokienez, sistema ezagunena etiketa bidezko ID3 sistema da, mp3 fitxategietan erabiltzen dena. Aurreko kasuetan bezala, etiketen bidez lanari buruzko informazioa fitxategiari eranstea aukera ematen digu, egileari eta *copyright*ari buruzko datuak barne; edizio-programek, erreproduzio-aplikazioek eta audioa kudeatzeko sistemek informazio hori ezagutzen dute. mp3 formatuak bezala, beste audio-fitxategi batzuek ere (wav, ogg, flac, aac, etab.) metadatuak eduki ditzakete, baina, formatu sorta zabaltzearekin batera, metadatuak sartzeko sistemak ere ugaritu egiten dira. Berriz ere, enpresen esku gaude, haiek erabakitzen baitute zer metadatu eta nola sartuko diren, zer informazio irakurriko duten, eta, gehienetan, beste programa batzuk erabili behar izaten ditugu etiketa horiek editatzeko. Bideoari dagokionez, beti izango dugu aukera lizentzia eta behar den informazioa ohiko kreditu-tituluetan sartzeko, ohiko gainerako datuekin batera. Hala ere, bideo-formatu guztiek etiketak eta XMP metadatuak txertatzeko aukera ere ematen dute. Hemen ere, erabiltzen dugun *software*aren araberakoa da hori.

14. Egile-eskubideak kudeatzeko erakundeak

Egile-eskubideen esparruan, eskubide horiek kudeatzeko erakundeak beharrezko —eta are ezinbesteko— bihurtzen dituzten bi arrazoi nagusi daude. Alde batetik, eskubideen ustiapen ekonomikoaren konplexutasuna dela eta, ia erabat ezinezkoa da egile batek bere kabuz bere lana non eta nola erabiltzen den kontrolatzea, eta are gehiago erabilera bakoitzari dagokion ordainsariari loturiko guztia kudeatzea. Gainera, Espainiako Estatuko Jabetza Intelektualaren Legeak berariaz zehazten du kasu batzuetan ordainsaria jasotzeko eskubidea ezin dutela egileek beren kabuz baliatu, baizik eta nahitaez erakunde kudeatzaile baten bidez egin behar dutela. Besteak beste, hala egin behar da komunikazio publikoagatik, liburutegietako maileguengatik, unibertsitatean erabiltzeagatik eta kopia pribatuengatik jaso beharreko ordainsariekin.³²

Ez dira horiek erakundeek ematen dituzten zerbitzu bakarrak, noski, baina beren kideen lanak ustiatzetik datozen etekinak bildu eta banatzea da haien jarduera nagusia. Elkarre horietako bateko kide ez bazara, inork ez ditu zure eskubideetako batzuk kudeatuko, eta zuri dagozkizun eskubide batzuk, nahitaez modu kolektiboan kudeatu beharrekoak, beste kideen artean banatuko dira, edo erakunde horiek betetzen dituzten beste funtzio batzuetara bideratuko dira.

35

Espainiako Estatuan, gaur egun, kudeaketa kolektiboko zortzi erakundek dute Kultura Ministerioaren jarduteko baimena:

VISUAL ARTISTA PLASTIKOEN ERAKUNDE KUDEATZAILEAK (VEGAP) hainbat arlotako sortzaileen eskubideak kudeatzen ditu: pintura, eskultura, argazkigintza, ilustrazioa, diseinua, bideo-arte, net-art, arkitektura... eta, oro har, ikusizko sortzaile guztiena.

EGILE ETA EDITOREEN ELKARTE OROKORRAK (SGAE) arlo hauetako sortzaileak biltzen ditu: musika, ikus-entzunezkoak (argumentu-idazleak, gidoilariak eta zuzendariak), arte eszenikoak (antzerkigileak eta koreografoak) eta musika-edizioa.

ESKUBIDE ERREPROGRAFIKOEN ESPAINIAKO ZENTROAK (CEDRO) edozein bitarteko eta euskarritan argitaratutako liburu, aldizkari, egunkari eta partituren egile eta editoreak biltzen ditu.

32 Egile-eskubideen kudeaketa kolektiboari eta Espainiako Estatuko erakunde kudeatzaileei buruzko informazio ofiziala Kultura Ministerioaren webgunean eskuratu daiteke. <http://www.culturaydeporte.gob.es/cultura/propiedadintelectual/la-propiedad-intelectual/preguntas-mas-frecuentes/gestion-colectiva.html>

ESKUBIDE INTELEKTUALAK KUDEATZEKO ELKARTEA (AGEDI), fonogramen³³ eta musika-bideoen ekoizleena.

ARTISTA INTERPRETATZAILE EDO JOTZAILEEN ELKARTEAK (AIE) nagusiki musika-interpretatzaileak eta orkestra-zuzendariak biltzen ditu.

ARTISTA INTERPRETATZAILEEN ERAKUNDE KUDEATZAILEAK (AISGE) ikus-entzunezkoen arloko interpretatzaile edo jotzaileak biltzen ditu, hala nola aktoreak, dantzariak, bikoizketa-aktoreak eta eszena-zuzendariak.

IKUS-ENTZUNEZKO LANEN EGILE-ESKUBIDEAK KUDEATZEKO ERAKUNDEAK (DAMA) ikus-entzunezkoen sortzaileak biltzen ditu, gidoilarien, argumentu-idazleen, zuzendari-errealizatzaileen, itzultzaileen eta moldatzaileen arloan.

IKUS-ENTZUNEZKOEN EKOIZLEEN ESKUBIDEAK KUDEATZEKO ERAKUNDEAK (EGEDA) ikus-entzunezkoen ekoizleak biltzen ditu (film luzeak, film laburrak, telesailak...)

36 Lehen zortzi erakunde daudela esan dugun arren, hala jasotzen baita erakunde horien dokumentu ofizialetan eta webguneetan, Euskal Autonomia Erkidegoan beste erakunde bat sortu zen 2015ean, EKKI izenekoa

EUSKAL KULTURGILEEN KIDEGOAK (EKKI) lan mota hauetatik datozen eskubideak kudeatzen ditu: literaturakoak, musikakoak, dramatikoak, zinematografikoak, ikusizkoak, plastikoak, argazkigintzakoak, ikus-entzunezkoak, multimediakoak eta abar.

Beste erakunde kudeatzaile batzuetatik desberdintzen duen alde nagusia da diziplina artekoa dela, ez baitu bere arreta sorkuntzaren sektore batera edo bestera mugatzen, baizik eta era guztietako sortzaileak hartzen ditu bere baitan. Bigarren aldea da bere jarduteko esparrua EAera mugatzen dela, eta beren jarduera gehienbat autonomia-erkidego honetan egiten duten egileen eskubideak kudeatzen dituela.

Estatuko erakunde kudeatzaile guztiek oraindik betetzeko duten hutsune bat da oraindik ez dutela lizentzia libreak dituzten lanen kudeaketa barne hartzen. Kasu guztietan erakunde bakoitzaren irizpideen mende dago hori, baina, eztabaida honen erdian gaudenez, etorkizunean ezinbestean aldatuz joango dira irizpideok; gaur-gaurkoz,

33 Oro har, «fonograma» terminoak musika- edo soinu-grabazioei egiten die erreferentzia.

erakundeen printzipioak eta lizentzia irekien errealitatea bateraezinak direla dirudi. EKKI da salbuespen bakarra, agerikoa baita CC eta antzeko lizentziak dituzten lanak ondorio guztietarako kudeatzearen alde dagoela; gainerako erakundeei dagokienez, gaur egun batzuek bakarrik proposatzen dute nolabaiteko bateragarritasuna, hala nola VEGAPek. Hori bai, lan horiek beren errepertoriotik kanpo uzten dituzte, eta, ondorioz, horrek praktikan esan nahi du berriro ere bazter uzten dutela lan ugariaren kudeaketa kolektiboa, zeina erakunde horiek egin behar baitute nahitaez, legearen arabera.

Horiez gain, une honetan beste zalantza asko dituzte erakunde kudeatzaileek hainbat gairen inguruan: diru-bilketako eta banaketako sistemak, ordezkartza-kuotak, gobernu eta erakundeekiko *lobby* gisa jardutea... Hala ere, ez da hau ez unea eta ez lekua ziurrenik etorkizunean ere jarraituko duen eztatida³⁴ horri heltzeko.

15. Kultura beti iraganaren gainean eraikitzen da

Orrialde hauetan jabetza intelektualaren oinarri batzuk berrikusi ditugu, nagusiki gaur egungo jardun artistikoen alorrekoak. Kultura libre deiturikoak sustraiak non dituen ikusi dugu, bai eta egile-eskubideen inguruko eztatidara egin dituen ekarpenak ere; azkenik, lizentzia libreak izan ditugu aztergai, eta, zehazkiago, *Creative Commons* delakoak. Bukatzeko, lizentzia horiek nola aplikatzen diren azaldu dugu, lizentzien aukera sorta zabala aztertu dugu, eta gure lanetan aplikatzeko gako guztiak ematen saiatu gara.

Jabetza intelektualari, industriaren interesei, sortzaileen lanari eta kulturarako eskubideari buruzko eztatida irekia deritzogunaren erdian, Brett Gaylor-ek bere *A Remix Manifesto* dokumentalean eskaintzen duen ikuspegiak hori guztia perspektiban jartzen du, lau puntutan laburbilduz:

- Kultura beti iraganaren gainean eraikitzen da.
- Iragana beti saiatuko da etorkizuna kontrolatzen.
- Etorkizunean gero eta askatasun gutxiago izango dela dirudi.
- Gizarte libreak eraikitzeko, iraganaren kontrola mugatu behar da.

34 Gai horretan eta, zehazkiago, SGAEn inguruan sakontzeko, oso interesgarria da argitalpen hau: Legardón, Ainara eta David García Aristegui, SGAE, Monopolio en decadencia, Bilbo: consonni, 2017.



goener

Energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatiba
Cooperativa de generación y consumo de energía renovable



Geure lanari buruzko erabakiak hartzeak ondorioak izango ditu etorkizuneko kulturari. Espero dugu orrialde hauek erabaki horiek hartzeko erabilgarri dauden tresnak aktibatzen balio izango dutela.

Argi dago eztabaida honek aurrera jarraituko duela, arauak eta legeak ere aldatzen jarraituko duten bezalaxe. Bestalde, beste baterako utzi behar izan ditugu beste hainbat gai, hala nola “jabari publiko” eta “prokomun” kontzeptuak, *copyright*aren ordezkari batzuk (hala nola *anti-copyright* edo *ez-copyright*), eskubideak, formatuak eta tresna libreak kolektiboki kudeatzeko aukera berriak eta beste asko eta asko.

Eman, kopiatu ta zabal zazu!

16. Bibliografía

Barlow, John Perry, «Vender vino sin botellas: la economía de la mente en la red global», *El Paseante*, 27-28 zk: 10-22, 1998.

—, «Declaración de independencia del ciberespacio», *Periférica Internacional*. Revista para el análisis de la cultura y el territorio 1 (10): 241-42, 2009.

DiCola, Peter, y Kembrew McLeod, *Criminales del copyright: Ley y cultura del Sampling en la música electrónica*. Gijón: Hoja de Lata, 2014.

García Aristegui, David, *¿Por qué Marx no habló de copyright? La propiedad intelectual y sus revoluciones*, Casa de fieras. Madrid: Enclave de Libros, 2014.

LeGardon, Ainara, David García Aristegui, y Servando Rocha, *SGAE: el monopolio en decadencia*. Lehen argitalpena. Colección Paper. Bilbao: consonni, 2017.

Lessig, Lawrence, *Por una cultura libre: cómo los grandes grupos de comunicación utilizan la tecnología y la ley para clausurar la cultura y controlar la creatividad*. 1. arg. Madrid: Traficantes de Sueños, 2005. <http://www.traficantes.net/index.php/trafis/content/download/16243/176313/file/por%20una%20culturalibre.pdf>.

40

Liang, Lawrence, *Guide to open content licenses v1.2*. Róterdam: Piet Zwart Institute, Institute for Postgraduate Studies and Research, Willem de Kooning Academy, 2005.

Madrilonia.org, *La carta de los comunes: para el cuidado y disfrute de lo que de todos es*, 2011.

Rowan, Jaron, *Cultura libre de estado*. Madrid: Traficantes de sueños, 2016.

Sádaba, Igor, *La Tragedia del copyright: bien común, propiedad intelectual y crisis de la industria cultural*. Barcelona: Virus, 2013.

Smiers, Joost, *Un mundo sin copyright: artes y medios en la globalización*, 1. arg. Barcelona: Editorial Gedisa, 2006.

Stallman, Richard M., *Software libre para una sociedad libre*, Madrid: Traficantes de Sueños, 2004.

Valéry, Paul, *Piezas sobre arte*, Madrid: Antonio Machado Libros, 2005.

VV. AA., *Copyleft: manual de uso*, Madrid: Traficantes de Sueños, 2006.

Filmak

Christensen, Ralf, *Good Copy Bad Copy*, 2007.

Franzen, Benjamin, *Copyright Criminals*, 2009.

Gaylor, Brett, *Rip: A Remix Manifesto*, 2009.